



Arartekoaren 2018R-2790-17 Ebazpena, 2018ko apirilaren 23koa. Horren bidez, Pauleko Administrazio Batzarrari gomendatzen zaio auzolanen ordenantzaren edukia berrikusteko eta hori behar bezala izapidetzeko.

Aurrekariak

1. (...) jaunak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan, ez zegoelako ados Pauleko Kontzejuak egindako ohiko bileran onetsitako auzolanen ordenantzaren 3. atalaren aldaketaren edukiarekin, ezta hori modu eraginkorrean aplikatze aldera burututako izapidetzearekin ere.

Pertsona horrek azaldu du, 2016ko otsailaren 14ko bileran, ordenantzaren 3. atala aldatzea onartu zela. Hain zuzen ere, kexaren sustatzaileak bilera horretan adierazi zuen ez zegoela ados, jotzen baitzuen proposatutako aldaketak ez zuela zuzenbidea errespetatzen. Hortaz, 2016ko otsailaren 18an, alegazioen idazki bat aurkeztu zuen eta espedientea geldiarazteko eskatu zuen.

Administrazio-batzarrak ez zion alegazio-idatzi horri erantzun.

Horrez gain, 2017ko uztailaren 19an, hau da, akordiotik urtebete baino gehiago igaro ostean, auzolanen ordenantzaren aldaketaren hasiera bateko onespena argitaratu zen eta 30 eguneko epea eman zen balizko erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Horren aurrean, interesdunak berriz ere aurkeztu zituen bere alegazioak ordenantza aldatzeko proposamenari dagokionez. Hala eta guztiz ere, kontzejuaren 2017ko azaroaren 18ko bileran, erabaki zen kexaren sustatzailearen erreklamazioari ez erantzutea eta 2016ko otsailaren 14an onetsitakoa berretsi egin zen gehiengo kualifikatuz.

Arartekora jo duen pertsonaren iritziz, bere garaian administrazio-batzarrean aurkeztutako eta aldatutako ordenantza jendarteratzeko epean berriz ere errepikatutako alegazioei jarraiki, ordenantzaren testua ez da legezkotasunaren araberakoa.

2. Arartekoak, behin kexaren xedea aztertuta, informazioa eskatu zion Pauleko Administrazio Batzarrari eta lehenengo gogoeta batzuk helarazi zizkion auzolanen ordenantzaren aldaketari aplikatu ahal zaion lege-esparruaren inguruan. Halaber, kexaren sustatzaileak eskatzen zuen izapidetzea egiaztatzeko eskatu zuen, baita sortutako eta eskaeran adierazitako lege-kontuen inguruko iritzia emateko ere.
3. Pauleko Administrazio Batzarrak gure informazio-eskaerari honela erantzun zion:





“El Sr. (...) presentó alegación a la modificación referida, y se desestimó, por unanimidad, en Concejo celebrado al efecto.

A la vista de las posteriores alegaciones, nuevamente, se desestimaron las mismas, por unanimidad de todos los asistentes al Concejo, celebrado el día 2 de Diciembre de 2017, y con el voto en contra del Sr. (...).

Dicha desestimación se le notificó verbalmente en el citado Concejo (02/12/2017), y en el mismo acto, se le comunicó, que si estaba en desacuerdo con la citada desestimación, acudiera a los tribunales que considerara competentes al respecto, ratificado mediante escrito certificado el 5 de Diciembre de 2017.

Desde esta Entidad, se considera, que el Sr. (...), ha sido debidamente atendido e informado ante las alegaciones presentadas.

En cuanto a su solicitud de envío de copia del expediente administrativo tramitado, se adjunta a la presente.”

Gogoetak

1. Arartekoak badaki zeintzuk diren administrazio-batzar batek egin behar dituen ahaleginak indarreko legezketasunak eskatzen dituen izapidetzeak betetze aldera, batez ere, dituen giza-baliabide eta baliabide material eskasekin. Hala ere, ezin dira ahaztu eska daitezkeen administrazio-prozedurak eta izapidetzeak; izan ere, horiek berdin-berdin behartzen dituzte herri-administrazio guztiak, horien tamaina eta eskuragarri dituzten bitartekoak gorabehera.

Nolanahi ere, lege-betebeharrak betetze aldera, kontzejuak lankidetzara eska dezake, Arabako Foru Aldundiaren aholkularitza juridikoa jasotzeko, egiaztatu dugunaren arabera, administrazio-batzar guztiak laguntzen dituen.

2. Kontzejuak tokiko erakundeak dira eta, hortaz, bakoitzaren foru lurraldeari dagokion foru araudia aplikatu behar zaio, baita tokiko araubidearen oinarritzko legerian xedatutakoa ere (Euskadiko Tokiko Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 2. artikulua).

Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuen martxoaren 20ko 11/1995 Foru Araua da berezko arauketa aplikagarria, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearekin batera.

Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Araua, aplikagarria den horretan.





Araudi-esparrua osatze aldera, kontzejua tokiko administrazioa osatzen duen erakunde bat da eta, beraz, Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aplikatu behar zaio, hain zuzen ere, administrazio-egintzen baliotasun- eta eraginkortasun-betekizunen ondorioetarako.

3. Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikulua ezartzen du tokiko ordenantzak onesteko, prozedura hau jarraitu beharko dela:

a) Osoko bilkurak hasierako onarpena ematea.

b) Gutxienez hogeita hamar eguneko epealdian jendarteratzea eta interesdunei entzunaldia ematea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

c) Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebaztea eta osoko bilkurak behin betiko onestea.

Inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikoa dela ulertuko da.

Antzeko terminoetan, hasiera bateko erabakien orde, behin-behinekoak aipatzen dituen 41/1989 Foru Arauaren 16. artikulua; hala ere, bi arauetan proposatzen da onespina bi faseetan egiteko. Horri dagokionez, artikulua horren 4. atalak, baita Tokiko Araubidearen Oinarrien Legearen 70.2. artikulua aurreikuspenak ere, ezartzen dute ordenantzen testu osoa edo horien aldaketena argitaratu beharko dela Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean; izan ere, ezingo dira indarrean sartu bertan argitaratu arte.

Kontzejuak, 2016ko otsailaren 14ko bileran, gehiengo kualifikatuz eta kexaren sustatzailearen aurkako botoarekin, auzolanen ordenantzaren 3. artikulua aldaketa onetsi zuen, hain zuzen ere, 2001eko urriaren 3ko Arabako Lurralde Historikoko 113. Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa.

Kontzejuaren 2016ko otsailaren 14ko erabaki hori 2017ko uztailaren 19ko Arabako Lurralde Historikoko 82. Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, hau da, erabakia hartu zenetik urtebete baino gehiago igaro ostean. Hala, beren-beregi jaso zen auzolanen ordenantzaren aldaketaren hasiera bateko onespeneren erabakia zela eta, Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, jendarteari jakinarazten zitzaion, interesdunek espedienteaz aztertu ahal izateko eta idatziz aurkeztu ahal izateko egoki zeritzen erreklamazioak hogeita hamar eguneko epean, zehazki, aipatutako erabakia argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.





Interesdunak, iragarki hori ikusita, alegazioen idazki bat aurkeztu zuen 2017ko abuztuaren 4an eta 2016ko otsailaren 18an aurkeztutako idazkian azaldutako kontu berak errepikatu zituen. Batzarrak emandako informazioaren arabera, 2016ko apirilaren 10eko bileran azkenengo idazki hori aipatu zen eta hauxe adierazi zen horren inguruan: *“Se continúa con el trámite de modificación de la normativa de veredas, se pospone la redacción de la contestación para el próximo concejo, y someterlo a votación”*.

Hala eta guztiz ere, ez da bestelako izapidetzerik jaso. Hurrengoa izan zen batzarreko presidentek, interesdunak 2017ko abuztuaren 4an, hau da, ordenantzaren erakusketa publikoko epearen barruan *“se anulen dichas modificaciones o sean redefinidas con justicia y precisión”* lortzeko aurkeztutako alegazioen idazkiari erantzunez bidalitako idazkia. Izan ere, idazki horretan adierazten dio aldaketa horiek onetsi zirela 2016ko otsailaren 14ko ohiko kontzejuan eta, uztailaren 10ean, aurreko akta onestean berretsi egin zirela (uste dugu 2016ko apirilako 16ko bileraz ari dela, aipatutako aktari dagokionez).

Batzarrak erakunde honi emandako erantzunean aipatu du *“berriz ere”* ezetsi zirela aho batez aurkeztutako alegazioak, hain zuzen ere, kontzejuaren 2017ko abenduaren 2ko bileran. Ulertu behar da 2017ko azaroaren 18ko bileraz ari dela, horren akta aurkezten baita. Horrez gain, gai-zerrendaren 4. puntuan aipatzen da *“Información sobre las sucesivas cartas de D. (...) a esta Junta”* eta batzarraren idazki eta erantzun desberdinen berri ematen da, zehazki, auzolanen ordenantzaren aldaketari dagokionez. Halaber, ahoz jakinarazi zitzaion ohiko justizia zeukala bere esku (2017ko abenduaren 5eko idazkia).

Laburbilduz, adierazitakoaren arabera, bilera horietan, ez zen auzolanen ordenantza behin betiko onestea erabaki, interesdunaren alegazioak berariaz ebatziz. Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 2ko 39/2015 Legearen 88. artikulua adierazten duen bezala, ebazpena arrazoituta egongo da eta interesdunek planteatutako kontu guztiez eta hortik eratorritakoez erabaki behar du. Horrelakoetan, administrazioak alegazioak ebatzi behar ditu, leporatutako legezkontrakotasuna indargabetzen duen arrazoiketa emanez, eta behar bezala azaldu behar ditu alegazioak baztertzeko eta onetsi beharreko testua zuzenbidearekin bat datorrela ondorioztatzeko arrazoi juridikoak.

Azkenik, gai horri dagokionez, adierazi behar da ez dela jaso administrazio-batzarrak (ez da espedientean egiaztatu eta ez da Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean aurkitu) behin betiko onesteko erabakia argitaratu duenik aldatutako ordenantzaren testuarekin. Horrenbestez, aldatutako testua ez da indarrean sartu. Hori dela-eta, kontzejua adierazten diren izapidetzeak betetzera dago behartuta, aldatutako ordenantzaren indarraldi osorako. Hala, bitartean, indarreko testutzat hartu behar da, oso osorik, 2001eko ordenantzaren testua.





4. Eduki materialaren ikuspegitik eta kexaren sustatzaileak aldatutako ordenantza behin betiko onesteko izapidetzean egindako alegazioak ebazte aldera, zenbait gogoeta egin beharra dago.

Indarreko testuaren 3.1. artikulua haxe ezartzen du:

“Auzolanek guztien onurari eragiten diete. Horregatik, nahitaezkoa da kontzeju honetako auzokoen familia edo egoiliar multzo bakoitzetik (kontzeju honetan elkarrekin etxebizitza bat daukatenean) kide batek edo egoiliar batek behinik behin esku hartzea.”

Hala ere, proposatutako testuak ezartzen du auzolanetara joan beharra daukatela kontzejuan **jabetza** duten guztiek (**lursaila**, etxea,...). Horrela, auzolanera joateko betebeharrak hori jadanik ez dago lotuta etxebizitza bat izatearekin eta horrek dakarren zerbitzu publiko orokorren erabilerarekin (ura, hiri-bide publikoak, saneamendua, argiztapena, parkeak, etab.). Izan ere, betebeharrak hori hedatzen da jabetzaren bat daukaten guztietara, nahiz eta horiek etxebizitzarik ez eduki. Hasiere batean, ematen du horrek tokiko erakundeen ondasunen kontserbazio-egoera eta erabilera mantentzera edo auzokideek eta biztanleek benetan gozatzen dituzten bizikidetzak-espazioak hobetzera bideratutako auzolanen zentzua aldatzen duela.

Edonola ere, kexaren sustatzaileak alegatzen duen bezala, proposatutako aldaketa, zalantzarik izateaz gain, ezin da aplikatu, aldatzen ez diren 2., 3.2. eta 3.3. artikuluen aurkakoa da.

Horrela, 2.3. artikulua honela definitzen du auzolana: **auzokideek edota biztanleek** egindako erabilerara edo zerbitzu publikora bideratutako kontzejuaren ondasun bat eraikitzeko, konpontzeko edo mantentzeko obra edo jardueratzat. Hortaz, adierazten diren espezifikazio eta salbuespenekin, etxe bat duten guztiak daude auzolanera joatera behartuta, jabeak izan edo ez, kontzejuaren erroldan inskribatuta egon edo ez; hala, kontzeptu horretan ezin dituzte sartu lursailen titularrak.

Izan ere, ondorio berbera atera daiteke 3.2. eta 3.3. artikuluetatik, proposamenean ez dutelako aldaketarik izan 2. artikuluari dagokionez. Horrela, 3.2. artikulua adierazten du ordenantzaren 2.3.1. artikuluan ezartzen diren auzolanetan parte hartzeko betebeharrak dutela auzokide-familiaren kide diren auzokideek, hau da, sabai beraren azpian elkarrekin bizi diren auzokideek. Zehazki, familia horretako kideren bat kontzejuaren erroldan inskribatuta egon behar da, urtean zazpi hilabete baino gehiago bizitzeagatik kontzejuan, 2.1. atalean zehaztuta dagoen bezala.

Bestalde, ordenantzaren 3.3. atalean aipatzen dira etxebizitza bat daukaten **biztanleak**, edozein titulurengatik, joan behar diren auzolanak, nahiz eta kontzejuaren erroldan inskribatuta ez egon, 2.2. artikulua definitzeko araberak.



Horrenbestez, indarreko testuarekin eta ordenantzaren 3.1. atalaren aldaketa indarrean sartu arren, etxerik ez daukan orok, edozein tituluagatik, ez dago auzolanera joatera behartuta. Artikulu horren aurreikuspena aplikagarria izan ahal izateko, gorago batzarrak behar bezala justifikatu beharko lukeen auzolanen zentzuaren inguruan adierazitakoa gorabehera, gainerako artikuluak berrikusi beharko lirateke. Izan ere, besteak beste, auzolanetara joan behar direnak jabeak badira, adibidez, bizi diren etxearen jabeak ez diren biztanleak ez lirateke egongo deialdira joatera behartuta eta, horrela, betebehar hori soilik ondasunen jabeena izango litzateke, etxea daukaten edo ez gorabehera. Horrez gain, horrek kontraesan bat eragiten du auzokide-familiaren definizioarekiko, ondasun horiek noren izenean inskribatuta dauden arabera, sabai beraren azpian bizi den kide horietako batek auzolanera joan beharko duelako eta, gainera, familiako beste kideek ere joan beharko dute, etxea ez den bestelako ondasunak badituzte bere izenean. Azken batean, esan daiteke ez duela ematen zuzena denik ordenantza osorik aplikatzea artikulu honentzat proposatutako idazketarekin, hau da, indarrean dagoen testuaren eduki osoa berrikusi gabe.

Bestalde, interesdunaren aburuz, ez da bidezkoa proposatutako 3.1. artikuluak auzolanera joateko betebehar horretaz salbuestea kide guztiak 18 urte baino gazteagoak diren biztanleen-taldea, familia edo biztanlea, salbuespen horretatik kanpo utziz 65 urte baino nagusiagoak, indarreko ordenantzan baztertuta ere geratzen zirenak. Proposamenaren inguruko iritzia eman daiteke, adin-muga bat ezartzeko eta horretatik baztertzeko lanak egitera behartuta daudenak baina ezin dituztenak egin. Izan ere, ezin dugu ahaztu, hori oso izaera pertsonala duen zerbait egiteko betebehar bati dagokiola eta egin beharreko hori dagokion pertsonari modu zentzudunean eskatzeko aukera egon behar da (Administrazio prozeduraren Legearen 104. artikulua). Edonola ere, joateko ezintasunaren ziurtagiri medikoa aurkezteko aukera jasotzen da eta, hortaz, uler daiteke, horrela, adina dela-eta betebehar hori bete ezin duten pertsonak salbuetsita egon daitezkeela.

Hasiera batean proposatutako ordenantzaren 3.4. atalari dagokionez, atal berri gisa gehitzen dena, hauxe adierazten du:

“Si el número de asistentes a la vereda no es representativo de los propietarios para la celebración de la misma, se determinará en Concejo la decisión a tomar.”

Aurretik **jabea** terminoaren erabilerari dagokionez adierazitakoa izan ezik, agerrarazten da, printzipioz, testu horretan lege-eragozpenik antzematen ez den arren, hasierako proposamenean kasu horietan *“se podrá llevar a cabo contratando un servicio externo pagando el coste a partes iguales entre todos los propietarios del concejo”* lortzeko asmoa zegoelako, gure ustez, aukera horrek ez lukeela legezketasuna errespetatuko. Izan ere, tokiko ogasunen baliabideak tasatuta daude (Tokiko Ogasunen Foru Arauaren 2. artikulua), eta aurreikuspen



horrek ez dauka lekurik foru arauak adierazitako zerrendan. Hortaz, kontzejuak ezingo luke horrelako erabakirik hartu, legez aurreikusitako kasu horietako batera egokituz gabe.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

1. Hala badagokio, kexaren sustatzaileak aurkeztutako alegazioen ebazpen arrazoituarekin, kontzejuak dagokion auzolanen ordenantzaren aldaketa behin betiko onesteko erabakia har dezan.
2. Hala badagokio, behar bezala argitara dezan behin betiko onespeneren erabakia, adostutako auzolanen ordenantzaren aldaketaren testu osoarekin batera.

